

KLIMA ALDAKETA



Lurreko klimak etengabe eboluzionatzen du. Denboraren joanarekin gertatzen zaion aldaketak bi arrazoi mota ditu: alde batetik, kausa naturalak; eta, bestetik, pertsonen ekoizpen-jarduerak eta kontsumo-ohiturak. Gaur egun, komunitate zientifikoaren baitan adostasun zabala dago klima-aldaketaren inguruan, gizakion ekoizpen-moduak eta kontsumo energetikoak erritmo oso azkarrean klima aldatzen ari direla, eta horrek ondorio larriak ekartzen dizkiola gure planetari. Izan ere, gure bizimoduaren ondorioz sortutako negutegi efektuko gasek klima berotu, itsas maila igo, glaziarrek urtu, prezipitazioak gutxitu, janari uztak akitu, eritasun tropikalak hedatu eta abar luze bezain beltza sortzen du.

Egin itzazue binaka jarraian proposatutako jarduerak:

1- Ondorengo koadroan klima aldaketak sor ditzakeen hainbat ondorio bildu ditugu. Horrelakorik eman ote da Azpeitian azken urteetan? Bete ezazue koadroa gertaera bakoitzaren lekua eta urtea, ahal baduzue, zehaztuz:

GERTAERA	LEKUA/DATA
LUIZIAK	
UHOLDEAK	
BERO-OLATUAK	
LEHORTEAK	
SUTEAK	
UZTEN JAITSIERA	
GAIXOKETAK (alergiak; desnutrizioa; gaixoketa kardiobaskularrak; arnasketako gaixoketak; uraren, elikagaien, intsektuen bidez zabaldutako gaixoketa infekziosoak; substantzia kaltegarriekiko esposizioa; gaixoketa mentalak,...)	
IZURRITEAK	
ALDAKETA FENOLOGIKOAK (Aldaketak animalia eta landareen portaeran)	
BESTE BATZUK (zehaztu)	



1953ko uholdeak (kioskoa)



1983ko uholdeak

KLIMA ALDAKETA



Angele Olabarria Badiola



Juan Luis Odozola Astigaraga



Eregi, Euskara eta Komunikazioa



Mikel Zengaitza Alberdi

Herrialde garatuetan, pertsona gehienek bizitzaren zati handiena hirietan suertatzen da. Horregatik, Klima Aldaketaren mehatxuen aurkako zati handi bat udalek bultzatutako ekintzen bidez gauzatu behar da.

Errealitate honen ildotik, udalek CO₂aren emisioak murrizteko ondoren aipatzen ditugun neurriak, besteak beste, har ditzakete:

- Eraikin publikoetako isolamendua eta klimatizazioa hobetu.
- Kale argiztapena hobetu, kontsumo txikiko argiak ipiniz.
- Pizgarri egokiak ipini.
- Gas naturalaren hornidura-sarea zabaldu.
- Kogenerazio sistemak ezarri.
- Energia iturri berriztagarrien erabilera zabaldu: eguzki-energia termiko eta fotovoltaikoa, eolikoa, biomasa, biogasa e.a.
- Energia eta kontsumo jasangarriari buruzko informazioa eta orientazioa eskaini.
- Hiri-hondakinen kudeaketa jasangarria egin.
- Garraio politika egokia egin: garraio-beharrak murriztu, garraio-bide pribatuaren ordeztuz, bizikletaz (bidegorri sarea osatu eta zabaldu) eta garraio publikoaren bidez antolatuz (zerbitzua zabaldu eta osatu).
- BEG (Berotegi Efectuko Gasak) gutxi isurtzen duten autoak sustatu.
- Etxe bioklimatikoak eraiki.

Aztertzen ari garen arazoan eta, Azpeitiko agintarien esanetan, Ingurumena zaintzeko sortutako pentsakeraren eboluzio honek, pixkanaka-pixkanaka, egoera hobetzeko eta zaintzeko kultura sortu du. Eta bide hau bultzatu nahi dute Udaletik ere.

KLIMA ALDAKETA



Eskolako Agenda 21

2- Azpeitiko udaleko informazioa aztertu eta gero (eranskina), baloratu zein neurri aurrera eraman diren Azpeitian eta zeintzuk ez, ondorengo koadroa osatuz.

UDALAK HARTUTAKO NEURRIAK	UDALAK HARTU GABEKO NEURRIAK

DBH 3 - 4 MAILAK

3- Zerbait gehiago egin al dezake udalak?



4- Zer neurri har ditzake ikastetxeak klima aldaketa gutxitzeko?

5- Zu zeu zer egiteko prest zaude?
